

BEZEROEKIN HARREMANA

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure produktua zabaltzeko ahal izateko, zeharkako eta zuzeneko harremana funtsezkoa izango da.

Alde batetik, zeharkako harremana izango dugu. Izan ere, gure produktua beste enpresa batzuek salduko dute. Halere, jakina, gure produktua salduko duten enpresa guztiek gurekin harreman zuzena edukitzeko aukera izango dute, esate baterako, bezero batek produktuarekin arazoren bat duenean. Modu honetan, gure produktuaren salmenta nola doan jakingo dugu, eta gure bezeroak zer nahiago duten. Horrela, produktua hobetzeko aukera izango dugu. Gainera, guretzat gure produktua ez ezik, bezeroak dira gauzarik garrantzitsuena eta haientzako hoberena nahi dugu.

Beste alde batetik, komunikazio zuzena ere eskainiko dugu egunaren 24 orduetan zehar, eskuragarri egongo den telefono baten bitartez. Telefonora deituz gero, enpresako langileren bat egonogo da bezeroak dituen dudak argitzeko. Horrela, bezero-zerbitzu fidagarri bat edukiko dugu haientzako une oro.

Azaldutakoa betetzeko, gure produktua “Spotify”, “Tik Tok” eta “Instagram”en egingo dugun publizitatearen bidez salduko dugu. Gainera, publizitatearen hartzaile guztiok, produktuarekiko interesa izanez gero, aukera izango du link baten bidez gure web orrira sartzeko eta produktua erosteko. Horrez gain, “Whatsapp” eta “Instagram”-en kanal modukoak sortuko ditugu gure nobedade guztiak bezeroei komunikatzeko eta beraiekin harreman konstante bat mantentzeko.

Web orriari dagokionez, bezeroekin harremana zuzenekoa mantentzeko bidea izango da. Bertan, gure produktuen inguruko informazio guztia agertuko da, baita gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia ere.

Horrez gain, Garberan marketina egitea pentsatu dugu. Zehazki, haxe izan da gure ideia: gure produktua sarreran jarriko dugu eta haren ondoan informazioa emateko postua jarriko dugu, horrez gain, informazio gunean gure produktuaren denda txiki bat edukiko dugu, bezeroari gustatuz gero momentuan erosi ahal izateko. Gainera, deskontu bat jarriko dugu

Bukatzeko, badakigunez, gaur egun influentzerrak, (sare sozialen plataformetan) arrakasta handia hartzen ari dira marketing arloan. Hortaz, ezagunak diren influentzerrei bidaliki diogu gure produktua ahalik eta hoberen saldu dezaten.